

KARLOS LINAZASOROREN POEMAK

Nola badoan denbora

eta nola badoan mundua.
Itxaron eta zatoz, egon hor,
euria elkarrizketa bat da oraindik,
aingeru lokartu baten inurritegia.
Ez baitio jada beldurrik haziak lurrari,
ez baita biluztu huntzaren gorria,
zatoz orain eguzkiaren hatzetara,
egin dezagun zubi bat erreka-aren bakardadearentzat,
garait dezagun geure gorputz-oren hezur-
dura;
ez baikara iritsi urrundik muinera,
bidea eginez pizten baitira hildakoak,
zatoz nirekin, utzi bezperak etzirako,
har ezazu ahotan alferrik nire izena;
ez egon hor eta zatoz, maite,
nola badoan denbora,
nola badoan mundua
eldarnio hutsa da esna bazaude,
ez bazaude nire absentziaren izaretan logabetua.

Ez dut hiria begiz jotzen.

Urrats arrotzek su ematen diote gauari.
Urrundik nator, esku hutsik, galdua.
Lorerik gabeko etxeak, zakur aztoratuak,
orok ihes egiten dio bizitzaren erritmoari.
Begietan zeruko zaborra sentitzen dut,
azken arasako arropa zuria.
Euria ari du, zure teilatuan galdu zen ura naiz,
jaio ez ziren loreena.
Bertso besaldika banatu nahi nuke
jaio nintzenean lur honek eman zidana,
nire hortzen atsegin grabitaterik gabea.
Badakit berandu natorrela, enborra zazpi zatitan
ebakitzen didan nire kalumnia honen erruz,
tantaia kilkerrez beteriko paper berde bat balitz bezala.
Gurpil zoroak eginez nabil, zalantzaka,
ez dakit zein den txilarrez betetzen zintuen aldaba,
zein zartadatan biluztu ginen desagertzeraino.
Oraindik ez zaitut galdu, nire kuttuna,
betazal erne eta hezur bizi usaina dago,
zu ez zara edozein urki.
Denbora daukat, ahanztura daukat:
ez naiz gaur hilko bihar arte oraindik.

Ibaia da zure biluztasunari so dagoena,

hosto askea da gure gainetik hegan dagoena eta,
antzu edo urdin, larrua ukitzen dizuna.

Ez naiz ni, eta nahiago nuke,
ez naiz ni ez argi ez lamara sakon,
zugan lizar baten antzera barneratu zena,
eta ez naiz pubis sublimatu bat bezain ttikia ere.

Ez nintzen garaiz iritsi ibai izatera,
elurra hutsik eta oihartzunik gabe iritsi zen,
eta sugarretan zegoen laban batez nire haur-femurra
zeharkatu zuen, betiko hil ninduelarik.

Zer nahi duzu orain, maite?

Zuregatik hil nintzen, eta atzo berriro hilko nintzateke,
atzo eta materia edo dardararik gabe,
osorik zure beso beilegietan,
osorik eta ezpain-musuz berpiztua,
ibaiak miresten duen biluztasun hori
neuk ikus dezadan neure hatzekin, eta are hurbilagotik.

Ez nazazu bakarrik utzi, maite,
zatoz nirekin udamineraino,
azal urdinik gabeko itsasoraino,
zuk esan dezazun lekuraino: txori.
Begiak itxi eta arbola naiz, gorputz elurtu,
eta nigana basa-begiz hurbiltzen zara,
eta burua galtzen dut zure musuan, zure femurrean,
eta ametsetan elegia eta artoa kantatzen dizkizut,
minutu baten buruan zaren arrosa guztiak.
Txoratu egiten nauzu, eta ukitu ere bai sarritan,
zure argi eta izar polenaz,
eta betiko esaten didazu maite nauzula,
eta bidea egiten dugu gau zirtzilatuan;
jar zaitez pianoan lau eskutara ni gabe,
jo iezazkidazu atzera txerto denak,
esadazu nola irteten den zugandik zauririk gabe,
inoiz idatzi den libururik ederrena banintz bezala,
edo oilaritearen zepoan jausi den erlojua.
Ez nazazu utzi hilda edo bakarrik,
emadazu bizia edo dementzia,
aska ezazu ilea nire txilarrezko ohean,
itzul zaitez eta laztan iezadazu hezur-muina,
berriro eta berriro, maite,
zure ahotsaren giltza betiko gal dezadan artean.

Karlos Linazasoro